

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

345 zb.
www.getxo.eus

>> 2020ko Maiatza



STAY AT HOME



Sonam Finju / 8 años

Haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzuak

Sare sozialetako presentziatik haratago, haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzuek Getxon jarraitzen dute. **Gaztelonjak** programak, gaur egun lonjak itxita badaude ere, zerbitzuaren erabilzaileen egungo beharrei erantzuten die: alokairuen gaineko akordioak, segurtasun-neurriak, kontratuak... (gaztelonjak@getxo.eus eta 94 412 66 58 eta 638 322 065 telefonoak, astelehenetik ostiralera, 09:30etik 17:30era). **Gaztelekuak**, Romo eta Algotakoak, presentzia handiagoa dute Instagramen; hor, erronkak, tailerrak... proposatzen dituzte (Romo: guregunegaztelekua@getxo.eus eta tel.: 635 706 526; eta Algotara: gauegunegaztelekua@getxo.eus eta tel.:688 840 356). **Inklusio Zerbitzua** aniztasun funtzionaldun pertsonen laguntza eskaini eta beraien ja-

rraipena egiteko, modu telematikoa: bideoedak, jolas didaktikoak... (inklusiua@getxo.eus, astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00 eta tel.: 688 681 527). **Ludoteka**, 5-11 urte arteko umeeentzat, baliabideak ematen ditu ezaguztera sare sozialen bidez (areetakoludoteka@getxo.eus eta tel.: 688 812 886); eta **Gazte Informazio Zerbitzuak** lanean jarraitzen du gazteen kontsultak erantzuteko (gaztebullegoa@getxo.eus eta tel.: 688 880 985).



BEKA SARIAK

***Eusko Jaurlaritzaren laguntza-neurriak prezio publikoetan eta unibertsitate-beketan, Covid-19ri lotuta.** Hezkuntza Sailak, datorren ikasturteari begira eta prezio publikoei dagokienez, proposatu du unibertsitateko tasa guztiak izoztea eta COVID-19ren eraginpean dauden bigarren lauhilekoko irakasgaien bigarren matrikularen kostua murriztea. Bekei dagokienez, unibertsitate-ikasketa guztietan jaitsiko da beka bat lortzeko behar den nota; errendimendu akademikoaren kalkulua malgutu egingo da bekari eutsi ahal izateko; eta administrazioak koefiziente zuzentzaile bat aplikatuko die familiei errenta-aitorpenean, baldin eta COVID-19ren ondorio ekonomikoak pairatu badituzte.

*** 20.000 beka eta online prestakuntza-laguntza baino gehiago, koronabirusak sortutako egoera hobetzeko.** Banco Santanderrrek #YoMeQuedoEtxea deialdia egin du unibertsitateko ikasle eta graduatuentzat, etorkizuneko enplegarritasuna hobetuko duten kompetentzia digitalak, hizkuntzak eta abar garatzeko. Gainera, unibertsitateko irakasleei jarduerak akademikoak ingurune digitalago batean egiteko aukera eskaintzen die. <https://www.becas-santander.com/es>

Orain arte 9 proiektu aurkeztu dira

2020ko Wanted programaren lehenengo edizioa

Alarma eta konfinamendu egoerak ez du eragotzi Wanted programak, Udaleko Gazteria eta Ekonomia Sustapen arloen arteko lankidetzatik sortutako ekimenak, lanean jarraitzea 2020ko lehenengo edizioa aurrera ateratzeko. 2019an egin zen bezalaxe, aurten ere bi edizio izango dira, eta lehenengoa abian da iadantik, hori bai, aldaketaren bat edo besterekin.



Konfinamendu egoeran proiektuak aurkezten jarraitu da. Era berean, urrutiko elkarrizketak egin dira proiektuen sustatzaileekin. Orain arte 9 proiektu jaso dira, honako esparru hauekin lotuta: kultura, zerbitzu juridikoak, argazkilaritza, zinema, artea, irratia eta hezkuntza.

Proiektuak eskuratu ondo-

ren, sektore horietako profesionalak proposamen horien gainean egindako txosten teknikoak egin dituzte eta sustatzaileei bidali dizkiete, ekarpen eta hobekuntza proposamenak jaso ditzaten.

Tailerra

Hurrengo urratsa Wanted tailerra izango da. Begibistakoa denez, tailer hori ezin izango da orain arte bezala egin, hau da, ez da presentziala izango. Horregatik,

bide telematikoa egiteko metodologia diseinatzen ari da, eta tailerraren helburuak betetzen saiatuko da, hau da, alde batetik, parte hartzaile guztiak proiektu guztiak ezagutzea eta haien artean elkar ezagutzea eta, bestetik, proiektu guztiak beste sustatzaileen eta profesionalen ekarpenak jaso ahal izatea.

Argibide gehiago:

www.getxo.eus/gazteria.

Gazteak konfinamenduaren aurrean: oraina eta geroa

Konfinamendu egoera Getxoko gazteengan, haibat bizi-esparrutan izaten ari den eragina hobeto ezagutzeko, Gazteria Zerbitzuak ekimen berri bat abiaraziko du. Horren helburuak honako hauek izango dira: alde batetik, gazteen ahotza entzunaraztea egoera latz hau nola bizi izaten ari diren ezagutzeko, eta bestetik, haiekin hausnarketak partekatze-ko espazioak sortzea, geure burua egoera honetan hobeto

kokatzeko lagungarriak izan daitezkeen gakoak aurkitu ahal izateko, bai haientzat bai gure herriko gazteria politikaren ardua dutentzat, deskonfinamendu-faseen ondoren irekiko den errealitate berriari begira. Honetarako, bi fase dituen proiektu txiki bat abiaraziko da. Lehenengo fasean, giltzarriak diren hainbat galdera dituen galdetegia betetzea eskatuko da. Bigarren fasean, erantzunak aztertu ondoren, hausnar-

keta espazio bat sortuko da era telematikoa bidez.

Galdetegia

18 urtetik 30 urtera bitarteko edozein gazte bete ahal izango du galdetegia, maiatzaren 7tik 17ra. Helburu nagusia izango da konfinamendua gazteentzat izaten ari denari buruzko informazioa biltzea, bai egungo egoerari dagokionez zein etorkizunari dagokionez, bai esparru pertsonalean (ikusuntu etiko, filosofiko, politiko, artistiko, etab-etik), zein esparru profesionalean (lan egoera, bizi espektatibak...). Halaber, erantzun hauekin gazteek eta tokiko gazteria politikaren ardura dutenek partekatutako hausnarketa bat sustatuko duen materiala sortuko da. Xede nagusia izango da egoera berri eta zail honetan nor bere lekua hobeto aurkitzen laguntzea, gazteentzat lan egiten duten profesionalak haien beharrei ahalik eta ondoen erantzuteko gai izatera iristeko.

Hainbat galdera proposatu dira, zorroztasun enpirikoa lortzeko batere asmorik gabe, ezta adierazgarritasun estatistikoa bilatzeko ere. Kezkatzen duten gauzetarako hurbilketak, batez ere, kualitatiboak izan nahi du.

Hausnarketarako espazioa

Lortutako erantzunak eztabaidarako materiala prestatzeko erabiliko dira, ondoren hausnarketa gune batean komentatzeko, noski esparru digitaletan (bideo-bilera, bideo focus group). Bertan, kafe baten inguruan eztabaidatuko da. Ekimenen parte hartzeko interesa duenak galdetegiaren amaieran adierazi ahal izango du.

Galdetegia:

www.getxo.eus/gazteria.

Gazteria Zerbitzuko lehiaketara konfinamenduan aurkeztutako marrazki batzuk



Judit Estrada / 12 urte



Gabriela Ampudia / 11 urte



Miren Goikolea / 7 urte